



2023. URTEKO MEMORIA

ETOLE ELKARGOAREN URTEKO MEMORIA

2023. URTEA

GASTEIZ, 2024ko URTARRILA

ARGITARATZAILEA:

Euskadiko Okupazio-terapeuten Elkargo Profesionala-ETOLE

EGILEAK:

ETOLE elkargoaren Kide Anitzeko Batzordea.

HELBIDEA:

Euskadiko Okupazio-terapeuten Elkargo Profesionala

Posta-kutxa: 65. Gasteiz (01080)

Telefono-zenbakia: 644 524 492

Helbide elektronikoa: info@etole.eus

AURKIBIDEA

0. AURKEZPENA.....	4
1. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA	5
Misioa.....	5
Ikuspegia.....	5
Gobernu Batzordea	5
Batzordeak.....	6
Estatutuak.....	7
2. ELKARGOKIDEAK	7
3. DEFENTSA PROFESIONALA	8
4. INFORMAZIO- ETA ZEHAPEN-PROZEDURAK.	9
5. OKUPAZIO-TERAPIA EZAGUTZERA EMATEA ETA ZABALKUNDEA EGITEA	9
Bizkaiko Osasun Foroa.....	9
Eskuliburuak eta Txostenak	9
ETOLE elkargoaren komunikazioa eta informazioa transmititzea... 9	
Prentsan.....	9
Okupazio-terapiaren Eguna	10
ETOLE sare sozialetan	11
6. LANKIDETZA ESTATU MAILAN	12
Okupazio-terapiako Elkargoen Kontseilu Orokorra	12
WFOT.....	12
Socinto	12
Lankidetzaren hitzarmenak	12
7. BESTE JARDUERA BATZUK.....	13
8. LIBURUTEGIA	13
9. BATZARRAK	13
10. KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA	14

0. AURKEZPENA

Lanbide eta bizi-estilo gisa aukeratu dugu Okupazio-terapia. Elkargokide eta batzordekide garen aldetik, lanbidearen esentziari eustea eta gauzak ongi egiteko dugun moduaren zabalkundea egitea da gure eginkizuna. Ezin dugu Okupazio-terapiaz hitz egin, okupazio-terapeutez eta ETOLE Elkargoaz hitz egin gabe.

2023. urtean, lehendik genituen lan-ildoekin jarraitu dugu: elkargokideei babesa eta euskarria ematea, gizartean Okupazio-terapiaren figuraren ezagupenen zabalkundea egitea eta ezagupenak eskaintzea, eta Euskadin lanbidearen hobekuntzak lortzen laguntzea.

Ahal izan dugun erakunde guztiekin parte hartu dugu eta hauekin harremanetan jarri gara, giza baliabide gutxi dugun arren.

Esan ohi dugun bezala, memoria batean ezin da islatu egunez egun egiten den lana, baina 2023an egin ditugun ekintza garrantzitsuenen zein aurkitu ohi ditugun zailtasunen zertzelada batzuk eskaintzen dizkizuegu. Halaber, gure lana bertatik bertara ezagut dezazuen animatzen zaituztegu, guztion laguntzagatik izango ez balitz, ezinezkoa izango bailitzateke hau guztia. ETOLE guztiona eta guztiontzat da!

Agur t'erdi

ETOLE Elkargoaren Batzordea.

1. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA:

MISIOA

Euskadiko Okupazio-terapeuten Elkargo Profesionala (ETOLE) kideen lanbidea eta interesak ordezkatzeko eta defendatzeko helburuz sortu zen, euskal gizartearen eta Estatukoaren interes eta beharrekin bat etorriz, eta lanbide soziosanitario honen jardunbide ona sustatzeko helburuz, erabiltzaileek beren eguneroko zereginetan autonomia hobetu dezaten, bizitza independente, egoki eta produktiboa lortzeko bidean lagunduz.

IKUSPEGIA

a) Okupazio-terapiako profesionalaren jardun-esparru ezberdinetan dituen eginkizunen zabalkundea egitea: pertsonenganako eta haien osasun fisiko eta mentalarekiko jarduketak, zein autonomia-maila handiagoa eta bizitza-kalitate hobea lor dezan, haren ingurunera egokitzeko eginkizuna.

b) EAEko okupazio-terapeuten kolektiboa kohesionatzea. Tradizioz, kolektibo aktiboa da elkarteen esparruan, eta sektorearen barruan koordinazioa eta kohesioa sustatzen eta bultzatzen jarraitu nahi du elkargoak.

c) Profesionalen etengabeko prestakuntza sustatzea, zerbitzuen kalitatea hobetzea sustatuz.

GOBERNU-BATZORDEA

Memoria hau egin den unean, honako hauek osatzen dute Gobernu-batzordea:

- **Lehendakaritza:** Miren Valverde
- **Lehendakariordetza:** Maite Martinez
- **Idazkaritza:** Sara Martinez
- **Diru-zaintza:** Antonio Caridad
- **Liburutegia:** Aintxane Bengoa
- **Arabako probintzia-ordezkaritza:** Miriam Aguilar
- **Gipuzkoako probintzia-ordezkaritza:** Gorane Elorriaga

- **Bizkaiko probintzia-ordezkaritza:** hutsik dago postua.

BATZORDEAK

PRESTAKUNTZA-BATZORDEA

Prestakuntza-batzordeak berriro ekin die bere jarduerari 2023an, eta hiru ikastaro-hitzaldi antolatu ditu urtean zehar.

Honako hauek osatzen dute batzordea:

- **Prestakuntza-batzordea:** Nerea Gonzalez, Henar Menéndez, Lorea Castillo, Maialen Pérez, Nagore Salazar, Maria Ricarte eta Laura Rodríguez.

Honako jarduera hauek egin dira 2023an:

- Neuro-terapia okupazionalari buruzko ikastaroa: Iktusa fase akutuan eta fase azpi-akutuan

2023ko maiatzaren 12an eta 13an egin zen Gasteizen, aurrez aurreko formatuan, eta 23 lagunek hartu zuten parte.

- Okupazio-terapiatik, taldekako teknika aktiboen aplikazio Osasun Mentalean (2020an egitekoa zen ikastaroa, eta bertan behera utzi behar izan zen, COVID-19ak eragindako pandemiagatik).

2023ko irailaren 29an, 30ean eta urriaren 1ean egitekoa zen, aurrez aurreko formatuan, Bilbon. 22 lagunentzako lekua zegoen gehienez, eta 10 lagunek bakarrik eman zuen izena; gutxienekoa 18 lagunekoa zenez, ikastaroa bertan behera uzteko erabakia hartu zen.

- Komunikazio ez bortitzari buruzko online bidezko hitzaldia, Inda Zangorekin

17 azaroaren 2023 egin zen online, Zoom plataformaren bitartez. 38 lagunek hartu zuen parte. Hitzaldi hori egin zen lehendabizi eta, ondoren, okupazio kontzienteei buruzko aurrez aurreko erretiroa egingo da Inda Zangorekin, 2024an.

LAN-TALDEA / SAREAK

Badago SARE SOZIALEZ (facebook, instagram, twitter, linkedin) arduratzen den lan-talde bat ere, argitalpenak sortzen eta partekatzen dituenak: Antonio Caridad, Maite Martinez, Úrsula Merino.

Hezkuntzako taldeari eskerrak eman nahi dizkiogu “Terapia Okupazionalako profesionalen funtzioak eta gaitasunak Hezkuntza sisteman” dokumentua egiten egindako lanagatik.

Maria Hueguni ere eskerrak eman nahi dizkiogu Etoeren mertsxandising eta zabalkunderako materiala bilatzen egindako ekarpenengatik.

eskerrak baita ere Ursula Merinori, CGCTOren Lehen Mailako Arretarako lan taldean lankidetzan egoteagatik.

ETOLEk aurrez aurreko batzar bat egin du Gasteizen, ETOLEren egoitzan, askotariko gaiak lantzeko, eta agiriak eta batzar eta batzar orokorretarako gai-zerrendak prestatzeko. Eta aurrez aurreko bi ekitaldi egin dira (pintxo-potea eta Okupazio-terapiaren Eguna). Horrekin batera, online formatuko 12 batzar egin dira, taldeko lana eguneratuta izateko. Horiez gain, beste batzar asko ere egin dira, baita ETOLEko lan-taldeekiko eta beste organismo batzuekiko koordinazio-lanak ere.

ESTATUTUAK

Eusko Jaurlaritzaren esku dago, eta hark behin betikoz onetsi dezan zain gaude. Erreklamazioa egin dugu, baina zain jarraitzen dugu.

2. ELKARGOKIDEAK:

2023. urtean, 17 alta berri egon da (horietako bi beste elkargo profesional batzuetatik ETOLEra etorri dira) eta lau baja ere egon dira (horietako bat beste elkargo profesional batera aldatu da, baina elkargokidetzat egoerari eutsiz). Urte amaieran, 250 elkargokide zituen guztira ETOLEk (ikus 1. eranskina).

3. DEFENTSA PROFESIONALA

2023an, ondorengo zerbitzuak egin ziren Euskadiko Terapia Okupazionalaren Elkargo Profesionalarekin (ETOLE):

- 1. Terapia Okupazionalaren Euskadiko Elkargo Profesionalak (ETOLE) EAEko adineko pertsonentzako Egoitzei buruzko Dekretua aldatzeko Dekretu-proiektuari buruzko alegazioak aurkeztu zituen. 2023ko uztailaren 27an aurkeztu ziren alegazio horiek, bitarteko elektronikoak erabilia.
- 2. Eusko Legebiltzarrean egon ginen. Elkargoak, lehendakariaren eta idazkariaren eskutik, batzarra egin zuen Zoom bidez Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten eta Osasun Batzordean parte hartzen duten alderdi politikoetako kideekin, Okupazio-terapeutaren figura azaltzeko, lanbideari ikusgarritasun handiagoa emateko, eta gure zerbitzuek gizarteari dakarzkieten onurak ezagutzera emateko.
- 3. Baterako batzarra egin genuen, beste autonomia erkidego batzuetako elkargoen aholkularitzekin. Batzar horretan, aholkularitza-lanean aurre egin behar izaten diegun arazoez hitz egin genuen, batik bat.
- 4. Ondorengo gaiei buruzko kontsultak:
 - Osasun Zientzietako espezialitateen zeharkako prestakuntza.
 - Osasun-zientzietako espezialitateak sortzea eta berrikustea.
 - Fisioterapeutentzako Hezkuntzako Ikastaro honen balorazioa: “Haurren hemiparesian goiko gorputz-adarraren balorazioa eta lanketa terapeutikoa eskola-ingurunean”; eta ikastaroa ematen duen pertsonarekin harremanetan jartzea.
 - LinkedInen, Lanbiden... argitaratutako eskaintza irregularren aurreko tratamendua.
 - SND/1427/2023 Agindua, abenduaren 26koa.

4.- INFORMAZIO- ETA ZEHAPEN-PROZEDURAK.

2023. ekitaldi honetan ez da zehapen-prozedurarik egin.

5. OKUPAZIO-TERAPIA EZAGUTZERA EMATEA ETA ZABALKUNDEA EGITEA

Bizkaiko Osasun Foroa.

2023an, Osasun Foroak batzarrak egin ditu martxoan, ekainean eta urrian, eta ETOLEko ordezkariak parte hartu dute.

Eskuliburuak eta Txostenak

- CGCTO Estatu mailan “Okupazio-terapia Hezkuntzaren arloan” agiriaren zabalkundea egiten hasi zen eta, ondoren, baita ETOLE ere.

ETOLE ELKARGOAREN KOMUNIKAZIOAK ETA INFORMAZIOA TRANSMITITZEA

Webguneko langileen ataleko barne-mezuen bitartez ari dira egiten ETOLE elkargoaren argitalpen eta/edo komunikazio ofizialak (19 bidali dira, mezu elektronikoekin batera. 12 sarrera egin ditugu, eta 102 argitalpen (trebakuntzarako 38 eskaintza eta enplegurako 64) www.etoled.eus webgunean.

Prentsan:

- Noticias de Gipuzkoa egunkarian argitalpen bat, Okupazio-terapiaren eguna zela eta.

Okupazio-terapiaren Eguna

Sare sozialetako presentzia etengabea izan zen Okupazio-egunaren aurreko eta ondorengo egunetan ere.

ETOLEk elkargokideentzako ekitaldi bat antolatu zuen, egun hori ospatzeko eta ideiak eta esperientziak trukatzeko: pintxo-potea egin zen, Gasteizen eta Donostian. Bilbon ez zen egin, ez zegoelako erreferentziatzko pertsonarik, ezta elkargokideen kolaboraziorik ere.



Urriaren 18an, jardunaldi berezia antolatu zen Gasteizen; okupazio-terapiako bi profesionalen zuzeneko emanaldia egin zen Argentinatik eta Vigotik. Argentinan okupazio-terapeuten eguneroko jarduna nolakoa den azaldu zuten, batetik, eta, ondoren, gure diziplinak lan-munduratzeko prozesuan nola laguntzen duen azaltzen duen liburua aurkeztu zuten.



ETOLE sare sozialetan

2023an, gure sare sozialak eguneratzen jarraitu dugu; gure elkargokideekin, beste okupazio-terapeuta batzuekin eta, oro har, jendearekin zuzeneko eta hurbileko harremana izateko modua dira sare sozialak. Horrez gain, gure diziplinaren zabalkundea egiteko tresna gisa erabiltzen saiatzen gara. Facebook, Twitter, Instagram eta LinkedIn sare sozialetan profilak izaten jarraitzen dugu.



Facebook: 2.300 jarraitzaile.



Twitter: 1.250 jarraitzaile.

COLEGIO PROFESIONAL DE TERAPEUTAS OCUPACIONALES
DEL PAÍS VASCO
EUSKADIKO TERAPEUTA OKUPAZIONALEN LANBIDE



ETOLE TO Euskadi
@etole_to

Colegio Profesional de Terapeutas Ocupacionales del País Vasco

etole.eus Se unió en octubre de 2013

998 Siguiendo 1.259 Seguidores



Instagram: 716 jarraitzaile.



17 564 320
Publicacio... Seguidores Siguiendo

ETOLE EUSKADI
Euskadiko Terapeuta Okupazionalen Elkarteak Colegio
Profesional de Terapeutas Ocupacionales de Euskadi
www.etole.eus/



LinkedIn: 513 jarraitzaile.



ETOLE. Colegio Profesional de
Terapeutas Ocupacionales del
País Vasco

"La Terapia Ocupacional, SOLO puede ser realizada
por personas DIPLOMADAS O GRADUADAS en Terapia
Ocupacional"

Hospitales y atención sanitaria • Vitoria-Gasteiz, País
Vasco / Euskadi

483 seguidores

6. LANKIDETZA ESTATU MAILAN

Okupazio-terapiako Elkargoen Kontseilu Orokorra (CGCTO): ETOLEk eskubide osoko kide gisa parte hartu zuen Okupazio-terapeuten Elkargoen Kontseilu Orokorrak (CGCTO) otsailean eta urrian Madrilen egindako batzarretan, eta martxoan online bidez egin zuen ez-ohiko batzarrean.

WFOT (World Federation of Occupational Therapists) eta COTEC

ETOLEk, CGCTO kontseiluko kidea den aldetik, nazioartean ere ordezkaritza du, WFOT eta COTEC erakundeetan. Gainera, gure batzordekideetako batek erakunde horiekin lan egin du nazioarteko ordezkari gisa eta, horrela, Okupazio-terapiaren errealitatea hurbildu ahal izan du, Estatu mailan zein maila autonomikoan.

Socinto: ETOLEk Socinto sozietatearen batzar eta komunikazioetan parte hartu zuen.

Lankidetza-hitzarmenak: 2023an, laster ETOLEren webgunean aurkitu ahal izango dituzuen ondorengo hitzarmen-atxikimenduei buruzko balorazioak egin ditu:

- Vohale Profesional
- NeuroEstudio
- Inda Zango
- Ingenia Neurología
- Reconecta Rehabilitación

BESTE JARDUERA BATZUK

AURKEZPENA ERAKUNDE PUBLIKOEN AURREAN

2023. urtean zehar, ondorengo hauekin harremanetan jarri eta elkartu da ETOLE:

- Batzarra Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiken Sailarekin.
- Batzarra Arabako Foru Aldundian
- Bi batzar Matia Fundazioarekin.
- Agerraldia Legebiltzarrean.

EKITALDIAK

Hainbat ekitalditarako gonbidapena jaso du ETOLEk, baina jende faltagatik, ondorengo hauetara bakarrik joan ahal izan da:

- Matia Fundazioaren jardunaldia; Iktusari buruzko ikerkuntza-azterketaren aurkezpena.

Ekitaldi, jardunaldi eta batzar askorako gonbidapenei uko egin behar izan diegu, jende faltagatik eta denera iritsi ezin ginelako.

7.- LIBURUTEGIA

Liburu bakarra mailegatu dugu aurten.

Gogorazten dizuegu webgunean dagoela eskuragarri katalogoa, baita txostenei eta agiriei buruzko atal bat ere.

Elkargokide batek hala eskatuta, “Vendaje funcional en Terapia Ocupacional. Miembro superior” liburua erosi dugu. Libururen bat falta dela uste baduzue, liburu berriei buruzko iradokizunak egitera animatzen zaituztegu.

8.- BATZARRAK

Elkargokideek ETOLEk antolatutako batzarretan izan duten parte-hartzeari dagokionez, hona hemen datuak:

Ez-ohiko Batzarra, martxoaren Tolosako (Gipuzkoa) Kultura Etxean (Foruen Plaza 1, 20400) egin zena, aurrez aurreko formatuan, eta modu telematikoan (13 lagun), baita boto-ordezkaritzarekin ere (lau elkargokide).

9.- KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA

2023ko BALANTZE EKONOMIKOA

DIRU-SARRERAK. 33.353,09 €	
GASTUAK	
Bulegoaren alokairua -3.826,74€	
Zerbitzu profesionalak	-5.652,87 €
Aseguru-primak €	-3.626,04
Banketxe-zerbitzuak €	-719,05
Batzordearen gastuak -3.600,84 €	
Beste zerbitzu batzuk -6751,82€	

Ikastaroen gastuak 0€	
Gastuak, guztira. €	-24.098,36
AZKEN EMAITZA	9.254,73€

10.- ONDORIOAK

Batzordekide garen aldetik, interesgarria iruditzen zaigu, amaitzeko, ohar batzuk egitea:

- Batzar orokorra modalitate mistoan antolatuta, errazagoa da elkargokideek batzarrean parte har dezaten. Hala ere, 2023an ez genuen lortu saioan parte-hartzaile kopuru nabarmenik. Horregatik, elkargoaren batzar orokorretan zuentzako erosoena den modalitatean parte hartzera animatzen zaituztegu, garrantzitsua iruditzen baitzaigu kontaktuan egotea eta elkargune bat izatea.
- Okupazio-terapiari laguntzeko esku-hartze maila guztiak lortzeko, funtsezkoa izaten jarraitzen du **Batzordeko** eta **lan-batzordeetako** postuak beteta egotea.
- **Anima** zaitez **hutsik dauden postuetan** parte hartzera edo, ekintza berriak egin daitezkeela uste baduzu, jar zaitez harremanetan Batzordearekin.
- Batzordea bere lana profesionalizatzeko saiakera egiten ari da, indarrean dagoen legerian oinarritutako jardute-protokolo xehatuagoak prestatuz, eta bide ofizialetatik, ETOLeren ikuspegia eta misioa kontuan hartuta.
- Partekatzen den informazio guztia eskuragarri dago, webguneko langileen arloaren atalaren bitartez. ETOLeren webgunearen bitartez modu aktiboan parte hartzera animatzen zaituztegu.
- Uste dugu beharrezkoa dela ETOLeko langileak sartzea, ETOLeren gestioak garatzeko eta arreta azkar eta eraginkorragoa emateko.

Batzordearen baitan lan-arlo berriak sortzea komeni da, eta Elkargotik sortzen diren eskariei erantzun ahal izatea.

- Gogorarazten dizuegu Batzordea prest dagoela edozein zalantza argitzeko edo, besterik gabe, informazioa partekatzeko, laguntza eskaintzeko, etab. Guztiok gara eta guztiona da ETOLE!!!

1. Eranskina.


2023. URTEKO DATU-BILKETA

Kontuan izanda 2023eko elkargokide kopurua 250 lagunekoa izan dela, ETOLEren datu estatistikoak erakusten dizkizuegu jarraian, elkargokidetzeari dagokienez.

ELKARGOKIDETZEAK	
ALTAK	17
BAJAK	4




ETOLEko ALTAK	
ALTAK	3
LEKUALDAKETAK	1
RE-ELKARGOKIDETZEAK	1




ETOLEKO BAJAK	
BAJAK	3
LEKUALDAKETAK	1




ADINA	
> 35 urte	76
35-44 urte	119
45-54 urte	46
55-64 urte	8
65-69 urte	1
> 70 urte	0



EREMU GEOGRAFIKOAK	
ARABA	69
BIZKAIA	89
GIPUZKOA	92



SEXUA	
GIZONAK	22



EMAKUMEA K	228
---------------	-----